

GAZTE NAIZ

Peoien berriak

Azken bolada huntan Euskal Erri'ko gazterik beste chore-bide bat bildu du bere alde: langilletasunaren kaka barnetik, eta ahal danik eta ongienik, ezagutu nahiz, antzina Simone Weil'ek egin zuten bezela, gure gazte batzuk —apaizak eta praktadunak— peoin gisa hasi dira lanean. Ziritzikeria nagusi dan uanean hori gertatzea, pozgarri da oso; eta urte onetan bizi gerala adierazten du.

Edozertan eta beti kontra egon nahi dutenek kasu huntan ere zer maixeturik aurkituko dute, eta salatzen hasiak dira: peointzan hasitako hauek ez dirala sasi-langilleak baizik; lanari utzi eta, nahi dutenean, dotore-dotore jaxten dirala eta kafeterietara; peointzan zenbait hilla-betez ari izanagatik, ez dutela langilletasuna arras ezkontzen edo nortzen; hobe lutekeala langille-gisa Errusia'ko langietgara jo, han ere beharra ba dagoela; eta abar, eta abar.

Ez naiz ni ukakor horietako bat izango. Azken hilla-beetan «peoin berri» hauetako batzuk buruz buru ezagutuko aukera izan dut. Eta nik txapela kentzen dut beren aurrean; eta besterik ezer esan aurretik, txapela erantzi ondoren mintzo naizela garbi agertzea nahiko nuke. Gazte hauek (eta horren gazteak ez dira danak, bestalde) belaua berriaren fruituaren atal eder bat gerta ditezke.

«Gure hertiaz» hitzegiten baitugu denok; eta ba zan garaia zapaldurik bizi dan gure herri egiazko hari bertatik ezagutu eta matatzeko. Lantegietan sakabanaturik ari diran peoin berri horien lekukotasunak, hortara, balio gaitza du; eta herriak ba daki. Geuk ere ba dakigu, hitzak baiño gorago mintzo baita jokabidea.

Gure herriko parte handi bat, gero eta handiagoa, industrialangillearen mailan bizi da; eta poindia da denetan zapalduena, zoritxarrekoena eta ezteusena. Gaur modan baitago (eta moda huts hau beraz ongi etorria izan dedilla!) langillearen alde hitzegitea, eta agian jokatzea, bidezkoa zan langillearen egiazko egoera beheltik ezagutzea. Langilletasuna nortu egin behar zan; eta nortu behar hau gazte batzuk hala senditurik, peoin gisa hasi dira lanean, eskuen larra maskurtuz. Berariazko peoin hauen ustez, langilleez hitzegitea ezin da langille-egoera gure buruan nortu gabe; eta are ezinago langilleen gizatartzearen burruka zuzentzea.

Egia xuxen ikusia da, nere ustez, langilleari buruzko leok ez baitira falta. Bestetik ere, ezin ditek langilletasuna arras bizi burges bizimodu batetik: gehienez ulertu

egin ditek, eta hau gutxi. Langille agintari batek bizi egin behar du langilletasuna, eta datzekon loturak eta eskasiak, bere buruan: ardiek ezagutzen ez duten artzari-rik ez dago. Hauxe izan zan apaiz langilleen kaka.

Baina gure herria euskalduna da; eta langilletasuna nortu behar dan bezelaxe, euskaltasuna ere nortu behar da. Erdaldun batek ez du Euskal Herria senditzen, eta gisa da. Erdaldunak Erdal Herria du senditzen, oharkabean bada ere.

Bigarren behar hau, euskaldun egin beharra alegia, oker ez banago, peoin berri gutxi ikusi dute gaur arte. Batzuk bai, ba dakit; eta hauetxek izan ditezke bihar gure langille-herriaren aintzindariarik osoenak eta egiazkoenak.

Beste batzuk, ordea, ahul atxeman ditugu alde huntatik. Ahul baiño okerrago bizpahiru kasutan: uste baitute banaka horiek euskalduntasunaz ari izatea, euskaldundu nahia, «arrisku» bat izan ditekela. Eta gure galdera hau da: arrisku bat, zein aldatetik? Zergatik arrisku bat? Zergatik bata beharrezkoa da, eta bestea alienazio-bide bat?

Langille abstraktori ez dagoen ezker, langilletasun abstraktori ez dago. Peoin berri hauek, bezaz, gure herriaren errotu behar dute; eta horrela ez bestela nortuko dute gertuz gure langille-jendea, horrela ez bestela izango dira Euskal Herriko zerbizariak. Euskalduntzen ez bada, hizkuntzaz eta gogoz, erdaldu geldituko dira; alegia, erdaldu langilleen kondizioa eta arima nortuko dute, eta ez langille abstraktoena. Gauza izango lirake, bezaz, Erdal Herriaren erdaldu langilleen arazok eta eskubideak aurrerazteko; baiñan ez gurenak.

Kasu hau garbi ikusi da Arjelia'n: Ben Bella'k, oso ezkerlarrari izan arren, sozialista «abstraktoak» bota zituen Arjelia'tik.

Peoin berri hauen borondate onaz eta idealismoaz zantalza izpirik ez dugun ezker, puntu huntaz ohartzeko eskatzen diegular. Erdal pentsakera burges pentsakera bezin sartua dago gure herrian. Kosmopolitakeria eta nazio-artekotasuna bi gauza dira, ez bat. Gure herriaren kondaira hemen azaltzea, bestalde, alperrik litzake, oso ezaguna baita: aski da, nahi izan ezker, egia aurrez aurre prestuki begiratzea.

Sasi-abstrakzioen arriskua (eta moda!...) gure artean nabarmena dan ezker, zenbait peoin berri beretan erriko ez dirala siñistu nahi dugu.

LARRSORO

UR BEHERA

IPUI ZAHAR BATEN AURPEGI BERRIA

Gizonki bizitzeko ahalmenik ez duan gizonari, eriotza jaito zaio.

Semeak amarekin oreatzen ziran; alabak aitarekin. Burruka zer zan ikasi zutenean, berriak sortutako burruketan iltzen ziran.

Aundia zan desfiantza. Aundiak griñak. Aundiak, baita-taere, guda-arrikkuak. Aundia gizon eta mundu aren beharra. Mundu ura erortzea zijoan. ¿Nork sortuko mundu berri bat?

Jainkoak, giza-gaiztakeria aundia zala-ta, giza-burupide ta asmo guziak beti gaitzera zuekela ikusi zutenean, giza-biotz batean sarturik, gizona bereganatu zuan.

—Ebanjelioetan—

Jainkoa itzegiten ari dek. Ixillean. Fedeari eutsi beharreen aurkitzen ba naiz ere, gaurko munduak dionari eusteko, fede bat behar diat. Bai, ogeitabostgarren orduan bizi gaituk. ¿Nork salbatuko gaitu? Alperrikakoak dituk gordeleku-atomiku guziak. Dena bonben zigorra besterik ez balitz... Jainkoaren zuzena izango dek zigor. Zuzeneztae karikatura bat izango dek, baiñan nahiago diat karikatura bat izan gizon-izatea alde batera utzea baiño. Kapitalismoaren ofarriak ausi-eziñak etzidak bildur izugarri-rik ematen: Gizonaren mugak auzeko bildurra zeukat.

Egia bakarrrik nahi diat, ta Jainkoa dek egi orren jabe.

—Fededun batek—

Ama, nik ez det santu izan nahi. Jeneralak gizonak ba dira, nik ere jenerala nahi det izan.

—Galdezka ari dan batek—

—Nik zure Jainko ortan ez det siñisten.

—Berdin dio. Beharrezkoena, sinismena.

—Alkarizketa bat—

Ta ontan ari zirala, gizon mozkor bat aurreratu zitzaian, mundua berak salbatuko zuala esanaz.

Mozkor arrek mundua salbatu zuan. Egoki gañera, zerbaiten sinismena ba omen zuan-da.

ANDU

GAURKO GAZTEAI ZERGATIK ATSEGIN ZAIE SOZIALISMOA?

Gaur egun, sozialismoaganako mobimentu gogor eta indartsua ikusten dugu. Gaurko gaztehen artean ere sozialismo arazo, au doazoa dabil. Azken aldi onetan liburu ta idazlanik pranko ikusi oi dugu sozialismo onetaz idatzirik. Bildur pixka batekin baiña modan dagoen gauza bat dala esaten auzartzen naiz.

Baiña dena dala, gaurko gazteak eta gazte ez diranak, zergatik jarduten dira ainbeste sozialismo onetaz? Beste sistema batzuek baiño lojikoagoa edo ederragoa dalako ote? Ez det uste. Zuzenagoa dalako baizik, eta kristau-karidatetz daukagan ideiarekin benetan bat datorrelako.

Kristauak —Irugarren Munduko 15 gotzainen eskutizak dioen bezela— benetako sozialismoa, osogorri biziitako kristautasuna dala erakusteko obligazioa daukate, baiña ondadan banaketa jatorra ta oñari-oiarriko berdintasuna ahaztu barik noski, auker ere kristautasun orren barruan sartzen diralarik alegia... Ta onela jarraitzen dute: «Alde batera utzi beharzan bereganatu gaitzen benetan pozturik, gaurko egunera oboetago egokituta dagoen sozial-biziera bat bezela, ta ebanjelioko espirituarekin ere batuago dagoelako».

Irugarren Munduko gotzai auker eman duten pausoa benetan ausarta izan da, baiña eman bearrekoa. Izan ere ainbeste injustizien aurrean burua makurtu ta ivilteak, oso gutxi esaten duela uste dut gaurko Eleiza'ren alde. Azkenengo aita santuek enzikloka bikainik pranko eman ditute; baiña zoritxarrez, lenengoetan zipizitin bat edo beste atera arren, naiago izan dugu autis artean ahaztuta uztea. Urte'aren asieran artu oi diran erabaki sendoen artean enziklika auker pixkat astintzekoa artu ezker, ez dot uste txarrena izanetan litzakeanik...

Gu, kinitela ta loteri arren galdurik gauden bitartean, neokapitalismoa ta neo-kolonialismoa bereak egiten ari dira. Alata guztiz ere betiko urrazoi ximplea entzuzera bear-tuak gaud: orain 30 urte baiño oboetago bizi omen gera... Baiña irakurle, onek ez du esanai gaurko langille baten bizi-malla goratu danik; bere bizi-malla orai orain 30 urte baiño bajuago gotea ere ditekema da, oraingo aurreraldi onek

gaur eguneko egoerari ta bearrei erantzuten ez ba-die beintzat.

Gaur egun, utzoko esklabo aiek ez ditugu ikusten, au da, gaurko langilleak atzoko esklabo aiek baiño askoz ere oboetago bizitzea ditekema da... Atzoko mixerri gorri ura, gaur ez dot uste ikusten dugunik-alderdi onetan beintzat-baizik, izen-gabeko pobreakerian biurtzen doala esango nuke. Bitartean, neo-kapitalismoak bere ondadan egunetik egunera gohorago... Ta baserriararak, elbarriak, zaharrak... zalantzarik aundienean bizi dira...

Neo-kapitalismo onek langille bat baiño geiago engañatu ditu. Izan ere langille'ari bere askatasuna eman bearrean, lehengo kate zaharrak oboagotuzten, dotoretuzten saiatu da; baiña ez dio libururik eman, eta benetan min dagio KULTURAK ASKATUKO ZAITU lemak izan ere ezten zorrotza bai du. Onela ba gaur, atzo bezela, «proletarioak» ez du jakintzarako eskubiderik, ez eta ere bizi-leku egoki baterako. Dauzkaten etxe-merke ta txabolekin konpome bearko ditu izan.

Ta Irugarren Munduko herri oietaz zer esan genezake? Kapitalismoak munduko gosea bear-bearrezko du, indutriz «aurreratuta» bizi diren lurraldeetan ugartasuna ta jakintza ahal izango ba dira. Neo-kapitalismo'ko langillei, ikusi dugun bezela, ezinheko zaie bururik altxatzea; ta aldaketa-bidean dauken lurraldeetatiko gizonak, alienazio ta mixerri-mallan askoz ere behegaro arkitzen dira oraindik.

Kapitalismo au dalata, batzuek ezin dute aurrera egin bestehen kontura baizik, eta pobre batek betik arkitzen du beste pobre bat zapaltzeko.

Ta injustizi guzti auen soluzioa, oraingoz beintzat, sozialismoak eman dezaigukela uste dut. Gizonaren askatasunerako biderik egokiena sozialismoan ikusten dut. Baiña bear duguna da: erriarena, erriarengatik eta erriarentzako izango dan sozialismoa; kapitalismo'aren esplotazioa agertu ta programa egoki bat azalduko duena; sozialismo indartsu bat, ezerean aurrean atzera egingo ez duena.

Azkenengo Batzar Nagusian gotzai batzuek ziotenez,

«gizona bene-benetan diruaren gañetik dago». Ta onela jarraitzen dute: «langilleak beren lanaren jabe izatera ez ba-dira iristen, estrukturetako aldaketa ta berrizketa guztiak alperrikakoak izanen dire. Noizpait, sistema ekonomiko baten barruan, langilleak soldata aundiago bat artzen badute ere, ezin ditekze soldata jasotze onekin bakarrrik gelditu. Izan ere euren lanaren jabe izan nai bai dute, ta ez saltzalle... Ba, lana pertsona'ren parte bat geiago da. Egi onetaz kontzientzia dutenak, egunetik egunera geiago dira. Ta gaur gizona ezin ditek ez saldu eta ez erosi. Lana'ren salerosketa guztia esklabokeri era bat besterik ez da. Ta gizarte'aren aldaketa sentidu orretan doa gaur egun'...»

Gure erresponsalidada, XX-gn. gizaldiko kristaueña, idea sozialista onei benetako giza-sentidua ematea da. Baiña sozialismoa dala ta, ezin gindezke amesetan gelditu, historiaren esijentzi bat bezela etorriko dalakoan. Ezin genezake esan emendik amar edo ogei urtera sozialismoa, gaur kapitalismoa bezela, nagusi izango danik. Gure mentalidade ta joerak aldaketa sakon eta gogorrak egin bearrean dira sozialismo'ra iriti aurretik.

Kapitalismoak bere barnean gaitz asko ta minkorrak izan ditu, baiña erresistentzi aundiakoa da ta bere gaitzen kontrako erremedioak sortzen daki... Ez dago batere ziurtasunik sozialismoaren etorkizunean. Gizonak sozialista izan nai ba-dute ta sozialismoaren alde burruka indartsua egiten jakiten ba-dute, biarko egunean sozialismoa egongo da. Sozialismoa ez da alabearreko bat; optzio edo autabide bat da.

Ez giza-malla bat, ez eta ere langilleak, ezin ditekze berez sozialistak izan. Bear-bearrezkoena da, kontzientzi bat sortzea. Au barik ez dago ezer. Baiña gogoan euki dezagun, kontzientzi arte au ez dala automatikoa... SOZIALISMOA IZANGO DUGU, GIZONAK KONZIENTZITZI SOZIALISTA DUTEN NEURRIAN. SOZIALISMOA EGONGO DA, BAKAR-BAKARRIK, GIZON SOZIALISTAK DAUDEN NEURRIAN.

JOXEMARY ALLUR